

Zu nolako, etxea halako

AURKIBIDEA

1. Sarrera

1. Lan-egitasmoa	2. or.
2. Ikastunitatearen oinarritzko ibilbidea	2. or.

2. Atazak

A Ataza: Zirt edo zart	4. or.
B Ataza: Estilo propioaren bila	10. or.
C Ataza: Gelaren traza, partituran trazoa	13. or.
D Ataza: Nire txokoan	17. or.

3. Eranskinak

1. Autoebaluazio-orria	21. or.
------------------------------	---------

4. Material osagarriak

A Ataza: Zirt edo zart	
1. Bertsotan bai	23. or.
2. Deskripzio idatzia	27. or.
B Ataza: Estilo propioaren bila	
3. Hiztegia lantzeko teknikak	31. or.
C Ataza: Gelaren traza, partituran trazoa	
4. Kanta trukean	33. or.
D Ataza: Nire txokoan	
5. Dastatu literatura: B. Atxaga: Henry Bengoa Inventarium	34. or.

1. Sarrera

1. LAN-EGITASMOA

Bigarren ikastunitate honetan dekorazioa, dekorazio-aldaketa eta dekorazioaren eta pertsonaren izaeraren arteko lotura dira mintzagai nagusiak.

Horretarako, testu deskriptiboaren zenbait ezaugarri jabetu beharko duzu.

Azken atazan, zeure etxeko txokorik gogokoena erakutsi beharko duzu. Neure txokoa deituko da sortuko duzun testua, eta bertan txokoaren argakia jarri eta idazlantxoan egin beharko duzu. Idazlantxoan txokoa deskribatzeaz gain, zeure biografiaren hainbat datu sartzen eta txoko/izaeraren arteko loturak azaltzen saiatuko zara.

2. IKASTUNITATEAREN IBILBIDEA

0. SARRERA

- Ikastunitatearen aurkezpena

(2. or.)



A. ZIRT EDO ZART

- Deskribapenerako hizkuntz baliabideak
- Ikasgelaren dekorazio-aldaketa
- Hiztegia: ikasgelako tresneria

(4. or. ik. lib.)

IRAK/ENTZ/MINTZ

OSAGARRIAK

BERTSOTAN BAI

- Andoni Egañaren kantaren lanketa

(23. or. ik. lib.)

ENTZ/IRAK

DESKRIPZIO IDATZIA

- Pertsona baten deskripzioa idatzi

(27. or. ik. lib.)

IRAK/IDAZ



3. IKASTUNITATEAREN IBILBIDEA

B. ESTILO PROPIOAREN BILA

- Hiztegia: egongela, logela, eta bainugelako osagaiak (azterketa morfologikoa: hitzak eta lokuzio lexikalak)
- Mapa semantikoaren bidezko ahozko azalpena
- Dekorazioa: gaur egungo joerak

(. or. irak. lib.) (10. or. ik. lib.)

IRAK/MINTZ/HIZT



C. GELAREN TRAZA, PARTITURAN TRAZOA

- Dekorazioaren eta musikaren arteko lotura psikologikoa
- Deskripzio idatzia
- Hiztegia = etxeko objektuak

(13. or. ik. lib.)

IDAZ/MINTZ



OSAGARRIAK

HIZTEGIA LANTZEKO TEKNIKAK

- Hitzak birpasatzeko

(31. or. ik. lib.)

HIZT



OSAGARRIAK

KANTA TRUKEAN

- Gustuko kantak elkarri pasa

(33. or. ik. lib.)

MINTZ/ENTZ

OSAGARRIAK

DASTATU LITERATURA: HENRY BENGOA INVENTARIUM

- Liburuaren aurkezpena
- Pasartetxoak

(34. or. ik. lib.)

IRAK

2. Atazak

A

Ataza: Zirt edo zart

Pertsona bakoitzak makina bat aldaketa izaten dugu bizitzan zehar; esate baterako, nortasun-, lagun-, bizimodu-, herri-/ etxe-, janzkera-/ orrazkera-aldaketak. Ataza honetan aldaketa-mota batez arituko gara, dekorazio-aldaketaz, hain zuzen ere. Cyber-tabernaren dekorazio-aldaketarekin hasiko gara eta ikasgelaren balizko aldaketarekin bukatuko. Ataza hau ikastunitatearen amaieran egin beharreko deskribapenera heltzeko bidearen lehenengo urratsa baino ez da.

1

- Zergatik aldatu nahi izaten du edozein tabernarik, tabernaren dekorazioa? Pentsa apur batean eta idatz itzazu hiruzpalau arrazoi. Ondoren, ikaskidearekin aldera itzazu arrazoiak.

- Irakur ezazu Euskaldunon Egunkariako Seiko urrea sailean zer dioskun Jon Alonsok horri buruz.

seiko urrea

Jon Alonso



Dena hasi ohi da halako kaleko tabernariak taberna zaharberri tzea erabakitzen duenean. Berriago tzearen aldeko argudio-sail bat

prestatzea ez da zaila izaten: nork bere negozi oia hobetzeko eginiko inbertsioa onuragarria da, denbora ez oso luzean berreskuratzen da dirua, bezero zaharrei atsegin apurra ematea ez dago gaizki, bezero berriak erdiesten ahal dira, eta abar. Berrikuntza nork egingo duen aurkitzea ere ez da zaila izaten; batek zein besteak, denok daukagu horretan ari tzen den lehengusu baten laguna, lagun jatorra, noski.

Itxuraz hain ezdeusa den erabakiaren ondorioak izugarriak izaten dira. Lehenbizikoa eta ikusgarriena kale hartako tabernari guztiak euren tabernak eraberritzen di tuztela izaten da, bata

bestearen ondoan. Denek arrazoi tuko di zki zute eraberri tzearen zergatiak goiko lerroetan emandako argudio berberak erabil iz, jaki na. Horretan ari tzen den lagunaren lehengusua -lehengusu jatorra, bistan da ere berbera izaten denez, tabernari en gustuak eta aurrekontuen luze-laburra bezala, bigarren ondorioa izaten da urtebetean halako kaleko taberna guztiak berdin-berdinak direla; emaitzari dagokionez, bestalde, hiru aldaera horien arteko harremanetik ateratzen diren taberna berri agotuak ez ohi dira inori txapela kenarazteko modukoak. (...)

- Azpimarratu testuan agertu diren aldaketarako argudioak eta erkatu zeuk idatzita-koarekin. Bat datoz?
 - Binaka jarrita, saia zaitetze testuari izenburu egokia aurkitzen.
-
- Orain, denon artean bikote bakoitzaren izenburuak konparatu eta aproposena aukeratu duzue.

2

- Gogoratzen zara 1. ikastunitatean zertan geratu ziren tabernaria eta bezeroak? Ba, idatz itzazu labor-labor tabernaren aldaketarako zergatiak eta hartutako erabakiak.

Zergatiak	Hartutako erabakiak

- Tabernaren dekorazio-aldaketa dela eta, dekoratzailearen eta tabernariaren arteko elkarriketa ikusiko duzu bideoan.
- Bideoa ikusi ahala, bete ezazu beheko taula, egiazko puntuen ondoan ✗ jarriz.

Dekoratzailearen proposamenak	Erabakitakoa
<ul style="list-style-type: none"> - adreiluzko hormak botatzea. - egurrezko mahaia, aulkiak eta pertxeroak botatzea - Iraneko alfonbra - loredun zenefatxoak, marradun papera - enkajezko bisilo beigea eta, gainetik, kortino italiarra - titaniozko altzariak - lorontzi txinarra - lanparak - horman, erditik gora pintura estukatua, okre kolorekoa - lurzorua kentzea - egurrezko zorua jartzea urdin metaliko batez tintatua - hormetan paper berdea jartzea 	<ul style="list-style-type: none"> - adreiluzko hormak bota eta paper berdexka jartzea - egurrezko altzariak mantentzea - apaingarrien eta lanparen kontua aurrerago ikustea - erditik gora pintura estukatua, okre kolorekoa - cyber-zorua arbelezkoa jartzea - titaniozko altzariak

2. Atazak

A

- Denon artean zuzendu ondoren, irakasleak emango dizu entzundako elkarrizketa osoaren transkripzioa. Irakurri eta marka/azpimarra itzazu, lehendabizi, deskribapen-zatiak.
- Gero, deskribapen-zatiak identifikatu ostean, saia zaitez erabilitako baliabideen arabera sailkatzen, hau da, forma, non ipini... etab., eta beheko taula betetzen.

Forma	Kokapena (non)	Zertarako balio	Materia (zerezkoa)	Zeren antza	Besterik
- biribila	- beheko aldean	- hormetan jartzeko horiek	- adreiluzko hormak	- Ming-dinastiakoaren antzekoa	- marradun papera

3


- Gatozen ikasgelara, begira diezaiogun ondo eta balora dezagun launaka jarrita:
 - gustukoa dugu? zergatik?
 - gelaren antolamendua (mahaia(k), aulkiak...)
 - baliabideak (arbela, hiztegia, kasetea...)
 - dekorazioa
- Zelan alda edo dekora genezake gela? Zer kenduko edo/eta gehituko genioke?
- Demagun ikasgela zeuen gustura eta beharretara janzteko eta antolatzeke aukera duzuela. Baina, jakina, hainbat proposamen desberdin izango duzue ikaskideen artean, eta denak ezin gauzatu. Beraz, talde bakoitzak bere proposamena denei aurkeztu ondoren (murala eta ahozko azalpena), bat aukeratu edo adostu beharko duzue.

Zirt edo zart

- Baina horra iritsi aurretik, ondoko pauso hauei jarraituko diezue:
 - Jar zaitezte launaka, begiratu klaseko beheko plano biei (jantzitakoa eta hutsik dagoena) eta pentsatu zer aldatuko zenuketen eta zergatik. Hemen duzue hori egiten lagunduko dizuen hiztegia:


Tresneria	Altzariak	Eskola-materialak	Bestelakoak
- telebista - bideo-magnetoskopia - bideo-kamara - irradi-kasetea - gardengailua - bideo-zinta hutsak - kasete-zinta hutsak - ordenagailua - inprimagailua	- apalategia - apalak - paladun aulkiak - palagabeko aulkiak - ikas-mahaiak - mahai luzeak - arbela	- artaziak - errotuladoreak - arkatzak - borragomak - kartulinak - orriak - karpetak - klarionak - grapagailua - zulagailua - kola	- hiztegiak - filmak - liburuak - aldizkariak - egunkariak - entziklopedia - mapak - afitxeak - apaingarriak

- idatz itzazue aldaketak plano hutsean



2. Atazak

A



- Ondoren, irakasleak emango dizkizun propaganda-orriak edo aldizkariak hartu eta egin errekortable antzekoak behar dituzuen gauzekin.
- Itsatsi kartulinar, dagozkien tokietan.
- Azkenik, presta ezazue zeuen proposamenaren aurkezpena, eta banatu nor zer azalduko duen. Kontuan izan jendaurrean egin behar duzuela berba eta ondo antolatu behar duzuela informazioa. Horretarako, presta ezazue aurkezpenerako eskema. Honen antzekoa izan daiteke:

Sarrera	Zer, eta zergatik aldatuko genukeen
Aldaketaren nondik norakoak	Zer <ul style="list-style-type: none"> - nolakoa, zerezkoa ... - non jarriko... - zertarako
Aldaketaren ondorioak	

- Ostean, talde bakoitzak bere proposamena azalduko die gainontzekoei.
- Bukatzeko, proposamen guztien artetik bat aukeratuko duzue, edo, bestela, denen arteko ideiekin beste bat adostu dezakezue. Eta aukera arrazoitu.
- Eta, gura izanez gero, horman jos ditzakezue mural guztiak.



4.1

- Bertsotan bai
4.1. ariketa osagarrian, 23. or., Andoni Egañaren bertso kantatua duzu. Beharbada, klasean egingo duzue ariketa hau. Horrela izango ez balitz, eskaiozu zinta irakasleari.



4.2

- Deskripzio idatzia
Material osagarri honetan (4.2., 27. or.) pertsona bati buruz idaztea proposatzen dizugu. Irakurri eta aztertuko duzun antzeko deskripzio idatzia egin beharko duzu ataza honetan.

2. Atazak

B

Ataza: Estilo propioaren bila

Dekorazio kontuen haritik tiraka, bigarren ataza honetan etxebizitzari erreparatuko diogu, bainugela, egongela nahiz logeletan azkenaldi honetan nagusitzen ari diren gustu eta joera estetikoak hizpidera ekarriz. Garrantzi berezia emango diogu arlo horretako hiztegiaren lanketari, hau da, objektuen izenak eta ezaugarriak nola adierazi behar diren euskara txukunean.

Horrekin batera, mapa semantikoa diskurtsoa egituratzeko erabiltzen ikasiko dugu. Bi alderdiok, hiztegia eta egitura, aintzat hartuta, ahozko azalpenak egin beharko dituzue taldekideen aurrean.

1

- Ekin diezaiogun lanari! Bizpahiru laguneko taldetxotan bilduta, hiztegi-ariketa erraz bat egin behar duzue. Irakasleak orri bat banatuko dizue eta orri horretan etxebizitzako gelaren baten (sukaldea, egongela, bainugela edo logela) marrazkia izango duzue, gela-mota horretan ohikoak diren objektu gehienekin. Objektu bakoitzak, ikus dezakezuenetz, zenbakitxo bat dauka zirkulu baten barruan. Zuen lana beheko zerrendako hitzak zenbaki horiekin uztartzea, lotzea izango da. Lan hori are errazagoa izan dadin, zerrendako hitzak multzokatuta eskaintzen dizkizuegu; ea horretaz baliatzen asmatzen duzuen!

2

- Orain, irakasleak, Euskaldunon Egunkariak dekorazioari buruz argitaratutako gehigarri berezi bateko hiru testu banatuko ditu. Hiru testuok, etxeko egongela, bainugela eta logela dekoratzerakoan gaur egun nagusi diren joerak eta moldeak azaltzen dituzte. Talde bakoitzak testu horietako batekin egin beharko du lan. Lehenbizi, testua irakurtzen hasi aurretik, azter ezazue taldekideon artean irakasleak prestatutako mapa semantikoa, ea testuaren nondik norako nagusiak aurreikusteko gai zareten.
- Irakurri testua, mapa semantikoa aurrean duzula. Irakurri ahala, edo nahi izanez gero bigarren irakurraldi batean, mapa semantikoko puntu nagusi horiek edukiz eta datuz osatzen joango zara. Egizu kontu, ondorengo ariketa batean, irakurritako testu horren berri eman beharko duzula talde osoaren aurrean, eta mapa semantikoa izango dela azalpen horretarako euskarri nagusia.
- Mapa semantikoa osatutakoan berriro zeure taldekideekin bilduko zara, egindako lana alderatu eta testua ulertzeko izan dituzuen arazoak komentatzeko.

3

- Taldeko bakoitzak irakurri duen testuaren berri emango du talde osoaren aurrean. Taldekideon artean erabaki beharko duzue lan hori nola banatu; mapa semantikoa aurrean duzuela, erabaki ezazue bakoitzak zein puntu jorratu behar dituen, zein puntutan hasi behar duen azalpena eta zeinetan bukatu.
- Talde osoaren aurrean egin beharreko azalpen horretan, seguruenik, orain arte ezezagunak ziren edota gutxi erabiltzen zenituen hainbat hitz eta lokuzio lexikal sartu beharko dituzu. Horregatik, txuleta moduko bat prestatzea komeni da, derrigorrez erabili beharko dituzula uste duzun hitzak jasoz. Horretarakoxe da, eta ez beste ezertarako, euskarri lexikala izeneko orria.

Euskarri lexikala

Testua: Etxeko gela pribatuenak

Lokuzioak	Hitz solteak
- behar pertsonalei erantzun	- erlaxatu
- elkartzeko leku	-
-	-
-	-
-	-
-	-
-	-
-	-
-	-
-	-
-	-
-	-
-	-
-	-
-	-
-	-
-	-
-	-
-	-
-	-
-	-

- Prestaketa bukatu ondoren, banan-banan talde osoaren aurrean azalduko duzue landutako testu-zati hori. Saia zaitez ahalik eta modu ulergarri eta argienean azaltzen. Ea nola moldatzen zaren prestatutako bi orri lagungarriak, hau da, mapa semantikoa eta euskarri lexikala izeneko orria, eraginkortasunez erabiltzen. Bestalde, ikaskideen azalpenak adi-adi entzun beharko dituzue, irakasleak horien balorazioa egiteko eskatuko baitizue, seguruenik.

2. Atazak

B

- Azalpenen erronda bukatzen duzuenean, irakasleak zuek prestatutako euskarri lexikal horiek guztiak jaso, eta zerrenda batean ipiniko ditu hitz eta lokuzio lexikal guztiak.
- Zerrenda hori eskuetan duzuela berriro launaka bilduko zarete, baina oraingoan laukoteak testu ezberdinekin lan egin duzuen ikaskideon artean osatuko dituzue. Egin beharreko lana hau da: zerrendako hitz guztiak birpasatu eta elkarri lagunduz hitzen esanahia kontestualizatu eta argitu.
- Hitzen batekin arazoak izan badituzue talde osoaren aurrean planteatu, ea denon artean argitzen dituzuen.
- Azkenik, egin dezagun hausnarketa txiki bat erabilitako teknikei buruz. Jarraian zenbait galdera edo hausnarbide proposatzen dizkizuegu; lehendabizi, apur batean pentsatu ondoren, bakarka eta idatziz erantzungo diezu galderoi:

Mapa semantikoa:

1. Mapa semantikoak testua hobeto ulertzen eta asimilatzen lagundu al dizu? Zergatik?
2. Mapa semantikoaren oinarritzko zatia eginda edukitzea zer izan da, lagungarria ala enbarazoa? Zergatik?
3. Zein beste funtzio edo erabilpen izan ditzake mapa semantikoak?

Euskarri lexikala

1. Zein eratako hitzak edo lokuzioak jaso dituzu orri horretan? Ezaugarri komunikatiboa al dute?
 2. Ezertan lagundu al dizu euskarri lexikalak? Zertan?
 3. Gauza izango zinateke hemendik aurrera hitz horiek edo antzekoak arazorik gabe erabiltzeko? Zergatik?
- Irakaslearen gidaritzapean, guztion artean komentatu eta eztabaidatuko dituzue erantzun guztiak.

C



Ataza: Gelaren traza, partituran trazoa

Ataza honetan, aurrekoetan ikasitakoa erabili beharko duzu: deskripzioaren ezaugarriak eta etxearen inguruko hiztegia. Oraingoan, beraz, sortzea da eskatuko dizuguna.

Horrez gain, musikak eta dekorazioak elkarrekin erlaziorik duten eztabaidatuko duzue.

1

- Ataza honetan musikak eta dekorazioak elkarrekin duten erlazioaz jardungo dugu. Musika-motak eta dekorazio estiloak lotuta daudela uste duzu? Zein musika-mota/talde/kanta egokituko zenioke argazkietako giro bakoitzari? Idatzi argazki-oinetan ikaskide baten laguntzarekin.



Komenta ezazue ikaskideekin labur-labur:

- antzeko gauzak idatzi dituzue?
 - zergatik egiten ditugu honelako loturak? ikasitakoak ala logikoak dira?
 - musika batek denoi gauza bera iradokitzen digu?
- Bideoan Kaxiano agertu zaizu. Dakizunez, itsua da. Cyber-ikasleek egin diote gutxi gorabeherako tabernaren deskripzioa Kaxianori. Zelan deskribatuko zenioke gure ikasgela ikusi ezin duen bati? Egizu 15 minutuz idazlantxo laburra. Horretan lehengo ikaskideak lagunduko dizu.

2. Atzak

C

GURE IKASGELAREN DESKRIPZIOA IKUSI EZIN DUEN PERTSONA BATENTZAT

- Truka itzazue idazlanak ondoko bikoteak eta zuek. Nolako deskripzioa idatzi dute? Dena ulertuko luke ikusi ezin duen batek? Azpimarra itzazue zuen iritziz ulertuko ez lituzkeen esaldi edo hitzak edo hitz-kateak. Azpimarraketen ondoan jarri G (=garatu)
Gero, jaso ezazue zeuen idazlantxoak eta buelta iezaiezue beraiena ondokoei.

Gelaren traza, partituran trazioa

- Zer? Azpimarra asko egin dizuete? G duzuen leku bakoitzean bi lan hauetakoren bat egin beharko duzue:
 - beste modu batean azaldu
 - gehiago garatu

GURE IKASGELAREN DESKIPZIOA IKUSI EZIN DUEN BATENTZAT
- BERRIDAZKETA-

Elkar-trukatu berriro idazlanak.

2. Atzak

C



- Ulegarriagoa da oraingoan eman dizueten bertsioa? Bi bikoteak, elkarrekin, horren gainean arituko zarete. Zalantza guztiak irakasleari komentatu.

Hiztegi-zerrenda hori aidean gera ez dadin, material osagarrietan (4.3.), 31. orrialdean, hiztegia birpasatzeko teknika bat proposatzen dizugu. Interesatzen bazaizu, egin ezazu etxean.

- Bosnaka jarrita gai honetaz hitz egingo duzue: Dekorazioa nolako, musika halako? Hau da, musika bat konposatu zeneko gelaren dekorazioak eraginik izan al dezake musika-estiloan?
- Ez apurtu boskoteak. Bi minutuz beste musika pasarte bat entzungo duzue. Goiko bi ondorio horien arabera, nolakoa da musika hori konposatu zeneko gela? Adostu boston artean eta idatzi hemen:

- Bideoa ikusiko duzue. Aurreko puntuan entzundako musikaren konposatzaileak, Urbil Artolak, bere gela deskribatuko digu.

Balora ezazue zein boskote hurbildu den gehien konposatzaileak deskribatutakoari.



4.4. ariketa osagarrian, kantak lantzeko teknika bat proposatzen dizugu (33. orrialdean).

D

Ataza: Nire txokoan

“Dekorazioa, ez da aulki edo koadro bat ipintzea, ez da bosgarren pisuko auzokidearekin lehiatzea, ezta ere dekoratzaile bat kontratatzeko nahiko diru edukitzea.

Askoz sinpleagoa eta konplexuagoa da aldi berean. Bakoitzak geure barnean daramagun balore bat da eta pertsonen ongizate eta gozamina lortzeko garatzen duguna. Beharrei, kezkei, preferentzia eta gustoei, inguru bati egokitzen jakitea da. Ezagutzea da, ikertzea. Ezer ez dagoen leku batean sortzea, hutsetik ateratzea.”

EGINO,E. Giroa sortzen in:

ARGIA, Etxea gehigarria, 1.551. zenb., 1995-XI-12

1

Itxura, deskripzioak, dekorazio-aldaketak,... iada ikastunitate honetan tratatu dituzuen gaiak dira. Oraingoan, azken atazan, dekorazioak eta izaerak duten edo ez duten loturaz arituko zarete eta ospetsu batzuen eta beren txokoen deskripzioak irakurri eta gero, zeurea eta zeurearena idatzi beharko dituzu. Argazkia prest duzu, ezta?

- Ikaskidearekin batera irakur ezazu Zu nolako, etxea halako testua. Testuko ideia nagusiaz jabetzeaz gain, parrafo bakoitzeko ideia nagusiaz ere jabetzea komeni zaizue. Gero, irakasleak hitz gako bat emango dizue eta irakurgaiak horren gainean dioena ahoz laburtzeko eskatuko. Beraz, eta lana errazago bideratzeko, idatz itzazue ideioek hemen irakurri bitartean. Ez idatzi parrafo bakoitzeko lerro bat baino gehiago.

- 1. parrafoko ideia nagusia:

- 2. parrafoko ideia nagusia:

- 3. parrafoko ideia nagusia:

- 4. parrafoko ideia nagusia:

- 5. parrafoko ideia nagusia:

- 6. parrafoko ideia nagusia:

- Testuko ideia nagusia:

2. Atazak

D

ZU NOLAKO, ETXEA HALAKO



Duda barik, etxea, gizakion adierazpide moduan, kulturaren eta bizimoduaren ispilu da. Ikerketa asko egin da horren gainean: etxeetan, pisoetan edo txaboletan bizitzea; gurasoekin, aiton-amonekin edo lagunekin bizitzea; etxeak auzoka, blokeka edo herrika antolatzea;... Horrelako azterketa soziologikoez herriek espazioa bereganatzeko eta jendea taldekatzeko duten era dute aztergai eta hortik izaerak ondorioztatzen.

Dekorazioaren bidez, ordea, gizaki bakun moduan inguruarekin dugun harremana islatzen dugu. Etxean gure bizitzaren aztarna mantentzen duten objektuak gordetzen ditugu. Horretarako ez dago fetitxista izan beharrik. Zein lan dugun edo zein ikasketa ere agerikoa izaten da gure etxeari bistadizoa emanez.

Bestalde, sentimenduak eta harremanak ere isladatzen ditugu etxeko hainbat elementuren bidez. Alde batetik, ate, horma eta abarrez espazio pribatuak eta komunak bereizten ditugu. Horrakoen bidez, etxera etortzen direnei noraino sartzen ahal diren adierazten diegu. Beste alde batetik, kanpokoei ematen diegun espazioak ere horixe adierazten die gure bisitariei: zenbaterainoko garrantzia ematen diogun beraien etorrerari, zenbateraino diren gure etxeko partaide. Leku komun horietan sofa asko edo gutxi edukitzea, mahaia haundiak edo txikiak izatea, lagunentzako komuna egotea ala ez, esandakoaren zeinu dira.

Edozein aukera egiten dugula ere, geure gustuak eta, beraz, geure izaera ari gara islatzen. Etxerako argitasun-mota aukeratzen dugunean, lanpara-motak edo argitasun-iluntasunaren artean aukeratzean, etxean kalearen presentziari ematen diogun garrantziaz ari gara hitz egiten.

Egia esateko, gure etxeen itxuran ez da dena erabaki konszienteen ondorio izaten. Modak eta teknologiak bultzatu dute, esaterako, leihoak zurezko izatetik aluminiozko izatera pasatzea eta hortik PVCzkoak izatera. Gero eta lanpetuago ibiltzearen ondorio da material garbierrazak hobestea. Komun, sofa eta antzekoen sofistikazioa gorputza zaintzeko duen gero eta garrantzi haundiagoagatik gertatzen dira eta etxean egotearen hobestea eta etxearen erosotasunak hartutako lehentasunagatik.

Baina, moda eta teknologiaren ondorioez aparte, gainontzekoa gure izaeraren isla dela esan behar da.

- Behin laburpena eginda, bat etorri zarete bikoteak testuaren ideia nagusia zein den adierazten?

Nire txokoan

2

- Dekorazioa gure izaera, lan, adin eta abarren isla baldin bada, nolako etxeak ote dituzte honako pertsonaia ospetsu hauek? Zuen oharrak arbelean batuko dituzue.
 1. Madrilen bizi baina Elorrikoa den aurkezle oso etxezaleak.
 2. Goierriko aktore, ezkondu, oso euskaltzaleak.
 3. Donostian bizi den emakume gazteak. Bizimodu bohemiadun zine-kritikoak
- Aurreikuspenok egiaztatzeko, euren etxeak ikustea baino zer hoberik. Bi minutuz ikusiko duzu etxe bakoitza eta, ikusi bitartean, lot itzazu bi zutabeak.

1. etxea
2. etxea
3. etxea

1. Ane Igartiburu aurkezlea
2. Mikel Garmendia aktorea
3. Bego del Teso zine-kritikoa

- Hiru etxeak berriz ere ikusteko aukera izango duzu, oraingo honetan jakinda zein noren etxea den, Datu biografikoen zutabeen 1, 2 edo 3 aukeratu beharko duzu. Gauza bera hurrengo zutabeen, eta hurrengoan eta hurrengoan.

Dena den, bideoan ikusitakoarekin ezin izango dituzu aukera guztiak egin; baina lasai, irakasleak ondoren banatuko dizkizuen testuetan aurkituko duzu falta duzun informazioa.

A) DATU BIOGRAFIKOAK	B) IZAERA	C) LANBIDEA	D) ETXEAREKIKO ATXIKIMENDUA	E) ZALETASUNAK
1. Itxura-aldaketa handia izan du, ahotsa ere aldatua du. Hamahiru urte daramatza oraingo lanean.	1. Beti bezain normal, jator eta sinpatiko izaten jarraitzen du.	1. Telesaioetan, bikoizketan,... aritzen da.	1. Ez du etxea zaintzen. Ez du apenas etxean bizimodurik egiten.	1. Etxean egiteko zaletasunak ditu: irakurtzea, musika entzutea eta kafea hartzea. Motor handiak eta motorren mundua ere gustatzen zaizkio.
2. Batzuetan, lanagatik, kanpoan bizi behar izaten du. Ahal duen guztietan bere herri txikira bueltatzen da.	2. Bohemia, gautxoria eta fetitxista da.	2. Inbidia asko aurkitu ditu bidean. Zine-eskaintzak ere izan ditu.	2. Besteren esku uzten ditu etxeko kontuak, dekorazioa, etab. Ez du etxean egoteko asti handirik.	2. Motorrak, musika, zezenak, erlojuak, metxeroak, boligrafoak eta futbola gustatzen zaizkio.
3. Bere itxura oso bitxia da. Arropa bakoitzeko erloju bat du, konbinatuta janzteko.	3. Saltseroa, animosoa eta oso jatorra da.	3. Hainbat komunikabidetan aritzen da zine-kritiko lanetan.	3. Bere herriko etxea du erreinu partikular. Oso etxezalea da.	3. Sukaldaritza gustatzen zaio: oso sukaldari trebea da.

Zer moduz egin duzu? Eta ba al du zerikusirik gure etxeko dekorazioak gure izaerarekin? Arbelean idatzitako aurreikuspenetan asmatu duzue?

2. Atazak

D

3

- Har itzazu berriro testuak. Gogoratzen zara A atazan testu deskriptiboaren ezaugarriak aztertu zenituztela? Ezaugarri horiek ba al daude eskuarteko hiru testuetan? Komenta ezazue talde osoan...

... zein den testu horien egitura

... zer informazio-mota agertzen den

- Egitura eta informazio-mota bera duen testua idatziko duzu orain. Neure txokoa edo ...-(r)en txokoa deituko da testu hori. Saia zaitetz txoko / izaeraren arteko loturak azaltzen idazlantxoan: ez egin bakarrik deskripzioa, zeure biografiaren datuak ere sartu...

Esaiozu irakasleari, horman jarri aurretik, testua txukuntzen laguntzeko. Ez ahaztu argazki dotore hori, gero!

- Ikaskideena ikusteko gogoz, ezta? Kuxkuserako une aproposa da, baina, aizu!, espero zenuen ...-(r)en txokoa horrelakoa izatea? Bera hain... izanda! Komenta itzazue horrelako gauzak talde osoan.

Eta deskripzio-testu horiek? Kalitatezkoak sortu dituzue? Gehiago landu beharrekoak dira? Egizue denon artean balorazioa. Pertsonala, autoebaluazioaren bidez (ikus 3.1 eranskina) egingo duzu.

3. Eranskinak

1

Autoebaluazio-orria


- Hiru laguneko taldetxotan bilduta, egin ezazue ikastunitatean egindako lanaren errebaso azkarra, ariketa bakoitzean zer eskatu zaizuen, nola egin duzuen, izandako zailtasunak eta abar komentatuz. (10-15')
- Gogoan izango duzuen bezala, ikastunitate honek lau azpiataza nagusi izan ditu: zirt edo zart, estilo propioaren bila, gelaren traza, partituran trazoa eta nire txokoan. Lau ataza horien balorazio pertsonala egin behar duzue etxean, honako hiru irizpideon arabera: **interesgarritasuna**, **onuragarritasuna**, **zailtasuna**. Gaizkiulerturik gerta ez dadin, kontzeptu horietako bakoitza nola ulertu behar den azalduko dizuegu:

INTERESGARRITASUNA: Ariketaren gaiak edo lan-prozedurak motibagarriak, arinak edo entretengarriak izan diren zuentzat.

ONURAGARRITASUNA: Honekin ariketari atera diogun etekin didaktikoa neurtuko dugu, hau da, ataza horren bidez ezer berririk ikasi dugun bai hizkuntzari berari buruz, bai hizkuntzak ikasteko moduari buruz, bai geure buruaren ahalmen eta mugei buruz.

ZAILTASUNA: Atazak zenbaiterainoko ahalegina eskatu digun adierazten du. Lortutako produktuen kalitatea ere oso lotuta egon daiteke faktore honekin.

- Etxean ikastunitatea astiroago eta sakonago birpasatu eta hausnartu ondoren, honako grafiko hau betetzea proposatzen dizuegu:




3. Eranskinak

1

Instrukzioak:

- Hiru ezaugarri horien gorabeherak adierazteko hiru marra egin beharko dituzue grafikoan ezkerreko muturretik hasi (lehenengo ataza) eta eskuineko muturreraino.
- Ezaugarri bakoitzerako kolore ezberdineko marra egingo duzue: interesgarritasuna urdinez, onuragarritasuna gorriz, eta zailtasuna berdez, adibidez.
- Amaitutakoan, grafikoak itxura hau izan behar du:



- Grafikoarekin batera, esanguratsuenak iruditzen zaizkizuen gorabeheren zergatiak ere idatziz azalduko dituzue labur-labur.

1. _____
2. _____
3. _____
4. _____
5. _____
6. _____

- Hurrengo egunean, egindako lanaren berri emango duzue, taldetxoetan bilduta lehenengo, eta klase osoaren aurrean, gero. Saia zaitetz zeuri dagozkizun kontuak argi eta garbi azaltzen eta ikaskideen balorazioak arretaz entzuten. Horrela eginez gero, denok aterako zarete irabazian.

4. Material osagarriak

A

1. Bertsotan bai¹

PROZEDURA:

Gaur entzungo duzuen abestian arte ederren eremuan sartzen diren hiru aktibitate artistikoren aipamena egiten da, margolaritza (pintura), eskultura eta argazkigintzarena, hain zuzen ere. Hiru arte-mota unibertsal horien parez pare, oso gurea dugun beste arte bat ere aurkituko duzue: bertsolaritza.

1

Entzun aurretik

- Lehenbizi, beste ezertan hasi aurretik, saia zaitezte nahasian dituzuen hitz horiek zein arte-motaren eremu semantikokoak diren asmatzen. Hortaz, globoan dauden hitzak banan-banan hartu eta beheko taulan idatzi, bakoitza dagokion lekuan. Egizue kontu hitz horiek guztiak abestian agertuko direla, eta abestia hobeto ulertzeko egiten dugula atariko lantxo hau.



PINTURA	ESKULTURA	ARGAZKIGINTZA

Oharra: Beharbada hitzen bat edo beste multzo batean baino gehiagotan ipin daitekeela pentsatuko duzu. Horrela bada, ipini nahi beste multzotan, ez izan beldurrik!

¹ Egaña, Andoni, Tximeletak sabelean diska. IZ.

4. Material osagarriak

A

- Hitzen sailkatzea amaitutakoan, bil zaitezte hironaka eta aldera ezazue egindako lana, desadostasunak eztabaidatuz eta argibideak emanaz.
- Askatuezineko korapilo edo zalantzarik geratu bazaizue, eskatu laguntza irakasleari.
- Entzungo dugun abestia lau bertsoak osatzen dute. Ondoren aurkituko dituzun lau testu-zatiak lau bertso horien amaierak dira. Irakur itzazu arretaz eta saiatu ondorengo galderatxo horiei erantzuten.

1. "nahiz eta jardun eginahaletan behar hainbeste kolorerikan ez neukan nere paletan"

2. "Azkenerako ohartu nintzen nahita ere ezin zela irudi batek islada zintzan ederregia zinela"

3. "ze bide pobre eta urria argazki kamararena une bakarrak ezin azaldu zu neretzako zarena"

4. "bertsotan aisa azal dezaket zenbat maite zaitudan"

Galderak:

- Zein arlotan edo arte-motatan da trebeagoa abestiaren egilea?
 - Eta zu zeu, zeinetan moldatzen zara hobeto?
- Aurreko puntuko galderatxoek erantzunak guztion artean komentatuko dituzue labur-labur.
 - Puntu honetara iritsita, aditu batek gaur egungo musikari buruz idatzitako testutxo hori irakurri behar duzue (Abesti modernoak : nor, noiz, nori). Testuak, ikusiko duzuen bezala, gaur egungo musikaren ezaugarri eta kerak zein diren esaten digu.

Abesti modernoak: NOR, NOIZ, NON.²

Azken harmarkadetako musikaren gainean egindako ikerketa batean adituek ikusi dute abesti ia guztiek nitasunaren erreferentzia dutela, eta bigarren pertsonaren, hau da, zu edota hi-aren agerpena abestien %88-ra iristen dela. Bi kasuetan, hala ere, izen jakinik gabeko izenorde huts izan ohi dira, ni eta zu horiek, anonimoak alegia, hezur eta haragizko gizakien mozerro. Abestien gaia, jakina, amodioa izan ohi da gehienetan, hori bai, tratatutako askorekin: maitasunaren sortzea edo ernetzea, maitasunaren bilakaera eta hazkundera, maitasun-galtzea, etab. Badirudi abesti gehienek mezua betiko maite zaitut hori dela, baina inoiz ezin izaten dugu jakin nor-nork motako aditz horren atzean zein arrai dagoen.

Horrez gain, oso abesti gutxiren testuetan aurkituko dugu abeslariaren edo egilearen sexuaren (gizonezko ala emakumezko) aipamenik, ehuneko hamarrean edo. Bigarren pertsonaren sexua gehiagotan aipatzen da, ehuneko hogeita

² Honetan oinarritutakoa: "Discourse analysis of pop songs" in: Murphey, Tim 1992 Music & Song. Oxford University Press, Resource books for teachers, 85. or.

hamarreen gutxi gorabehera. Honek esan nahi du mezuen emale-hartzaileak gizon-emakumezkoak izan litezkeela, inolako mugarik gabe. Gainera, gaur egungo abeslarien ahotsak entzunda, askotan ez da erraza izaten gizonetzkoak ala emakumezkoak diren esatea. Labur esanda, beraz, zehaztasun gutxiko ahotsak, norenak diren ez dakigun maitasun kontuak azaltzen.

Abestietan azpimarratu beharreko beste ezaugarri bat leku-denboren zehaztasun eza dugu; abestien ehuneko laurogeita hamalauan ez da denbora aipatu ere egiten, eta ehuneko hogeian bakarrik esaten da zerbait lekuari buruz. Gauzak horrela, abestietako gertakariak edonoiz eta edonongoak izan litezke, eta entzulearen unean uneko interpretazioak, ugariak inondik ere. Izan ere entzuleak bere mundu pertsonalera bil litzake abestietako kontakizun eta pertsonaiak oro, ete bere-berea den ikuspegi baten argitara ulertu. Abestien zehazgabetasunak, edo irekitasunak nahi bada, entzulearen eskuetan uzten du, azken buruan, esanahiaren zehaztapena. Abestiek ez dute, berez, ezer esan nahi; esanahia entzule bakoitzak bilatu behar du.

Azkenik, erabateko irekitasun hori dela medio, abestiak ia-ia trapuzko panpinak balira bezala erabil ditzakegu: abestiaren hitzak hor daude, akuilagarri, baina, norik bere gisara ulertuko ditu, eta ezentzunarena egin ere bai, lasai asko. Abestia beti hor egongo da, eskueran, gure tratu txarrak jasateko prest.

Walkman izeneko aparailuen zabalkundeak badu zerikusirik aipatu dugun "trapu zaharren" analogiarekin.

Entzun bitartean

- Orain letra osoa eskuetan duzula entzungo duzu abestia. Egin ezazu ahalegin bat letrak dioena ulertzeko.

BERTSOTAN BAI

1

ZURE KOADRO BAT EGIN NAHI NUEN
AMODIO-SEINALETAN
IKATZ-TTANTTA BAT DUZU ILEAN
GORRISKA BI MATRAILETAN
HORTZAK ZURIAK, EZPAINAK GORRI
BI ZULO GRIX HEGALETAN
MARGO ARREA, URRE MARGOA
IZAN ARREN BEGIETAN
IA MIRARI DIRUDI BAINA
EZ DA BERBERA BIETAN
SAIATU NINTZEN BENETAN
BAI ETSI ERE PENETAN
LOA BAZTERTUZ GAU ETA EGUN
NAHIZ JARDUN EGINAHALETAN
BEHAR HAINBESTE KOLORERIKAN
EZ NEUKAN NERE PALETAN.

2

AMOR EMANDA, AMORRAZIOZ
JAURTIKI NUEN PINTZELA
ESKUTAN HARTUZ ESKULTOREEN
MAILUA ETA ZINTZELA
BRONTZEZ ORDEA ZURE BAZTERRAK
EZIN EGOKITU BELA
BOROBILTASUN GUTXIGIKOAK
HARRIA ETA ARBELA
BUZTINA BERRIZ URTZEN ZITZ AidAN
IKARATURIK BEZELA
EGURRA DA GAI USTELA
DENBORA-EUSLE MOTELA
AZKENERAKO OHARTU NINTZEN
NAHITA ERE EZIN ZELA
IRUDI BATEK ISLADA ZINTZAN
EDERREGIA ZINELA.

4. Material osagarriak



3

ERABAKI DUT, EGINGO DIZUT
ZURE ARGAZKI GORENA
APROBETXATUZ ILUNABARRA
MOREZ JAZTEN DEN ORENA
ERREBELATU ZAITUDANEAN
NERE MINA, NERE PENA!
EZ DA BERDINA NEKE-UNEA
EDO-TA LOTAN ZAUDENA
ELKAR MAITATU AURREKOA TA
ASEAREN ONDORENA
NOLA HARRAPATU DENA?
ORAINA ETA LEHENA
ZE BIDE POBRE ETA URRIA
ARGAZKI KAMARARENA
UNE BAKARRAK EZIN AZALDU
ZU NERETZAKO ZARENA.

3

ZALANTZAN NAGO TREBETASUNIK
BADUDAN ALA EZ DUDAN
BERTSOEN BIDEZ SAIATUKO NAIZ
NAHI ETA EZINEN MUGAN
ETSIPENEAN ANIMO ZAITUT
SOSEGUA KALENTURAN
ESTALKI GOXO UDAZKENEKO
ARRATSETAKO FRESKURAN
DENBORALEAN BARE-ALDIA
IRRIFARREA TRISTURAN
BANDERA ZURIA GUDAN
PUNTILA XUMEA MUDAN
BEHEKO-SU TXINGAR NEGUAN ETA
LUR-BUSTI USAIA UDAN
BERTSOTAN AISA AZAL DEZAKET
ZENBAT MAITE ZAITUDAN

Andoni Egaña

Entzun ondoren

- Bukatzeko, adituaren testuan azpimarratzen ziren ezaugarriak gogoratu eta gure abestian zenbateraino betetzen diren aztertuko dugu. Horretarako, saia zaitez galdera-sorta honi erantzuten.

Galdetegia: Bertsotan bai abestiaren azterketa.

1. Pertsonen izen-abizenen zehaztapenik ba al dago abestian?

2. Leku-denboren aipamenik egiten al da abestian?

3. Abestiaren letra irakurrita, jakin al liteke abeslaria gizonezkoa ala emakumezkoa den?

4. Abeslaria ezagutzen ez duen batek jakin al lezake zer den, gizonezkoa ala emakumezkoa?

5. Zuk zeuk nola ulertu duzu abestia? Zer pentsatu duzu entzun duzunean? Zer sentiarazi dizu?

6. Zenbateraino betetzen ditu abestiak arestian irakurritako testuan deskribatzen diren ezaugarriak? Bat al dator estereotipoarekin, ala salbuespena da?

- Erantzunok lau laguneko taldetxotan komentatuko dituzue lehendabizi, eta gero, talde osoaren aurrean.

2. Deskripzio idatzia

Ataza honetan dekorazioaren inguruko deskripzioa landu duzu. Orain, etxean idaztea proposatzen dizugu, baina ez dekorazioaren gainean, pertsona bati buruz baizik. Gainera, irakurriko duzunaren antzekoa –asmakizun gisa– eta molde berekoa –hizkuntz baliabide bertsuak erabiliz–, idatziko duzu.


1


Idatzi aurretik

Has zaitez, bada, pausoz pauso:

1. Irakur ezazu Iñaki Mendigurenek Euskaldunon Egunkariako iritzi-zutabearen idatzitako deskripzioa. Eta ulertu.

Oharra: hor agertzen den argazkia Iñaki Mendigurenena da, eta ez deskribatutako pertsonarena.

 **Iñaki Mendiguren**



**Top model
(con eusko label)**

Bada gizon bat, eta zerbait izango da, telebistan agertzen baita sarri; oso da alai, atsegina, arina, guztiz light... Ez da ia ezer, korbata eta irribarrea besterik ez, haizea eta putza. Ederki hitz egiten du, ezer gutxi esan arren. Doktoretza eta masterrak ditu, Danone gorputza, after shave usaina eta markako trajeak; oso maite du ispi-lua... Baina sustrai gabeko landarea ematen du, mamirik gabeko azala. Oso informatua dago, nahiz eta

ezer askorik jakin ez. Dirua badu; hala ere ez da aberatsa. Autoa aldatzen du bi urtero, eta maitalea bostean behin. Etxe ederra du, eta zakurra, eta bi seme-alaba... asteburuetan erakusgai. Gauza askoren jabe, bera gauza gutxi bada ere. Ibili dabil harat-honat... flotatzen, nabigatzen... izarren artean, Interneten... lausengu eta balakuak salerosten. Ideologia eta erlijio guztien gainera paseatzen da etika urriko esteta hau. Zaharki tua, démodé iruditzen zaio aberri-kontzeptua, bera unibertsoa baita, burtsako akzioak bezala. Irudiaren zibilizazioa denez, pantailakoa bakarrik irakurtzen du, baina kultura izango da, Guggenheimera joateko asmoa baitu Abiadura Handiko Trenean... Progre eta moderno? Ez, gehiago da! Postmoderno? Ezta! Geroagoko zerbait. XXI. mendearen atariko gizona duzu, modako eredu, buztinezko idolo hauskorra, kutxa tenteletik irtendako, panpin txotxongiloa... baina arrakastatsua, garai lea, irabazlea!

4. Material osagarriak



2. Polita deskribapena, ezta? Nor izan liteke pertsona hori? Bururatzen bazaizu idatzi bere izena, bestela, ez dio ardura, jende askorentzat balio du eta.
3. Orain, erreparaiozu deskribapen-moldeari. Ez zaizu iruditzen erritmo bizi-bizia eta polit-polita duela? Zerk ematen ote dio hori? Hau da, zeintzuk baliabide erabiltzen ditu idazleak erritmo hori lortzeko? Ez dakizula nondik hasi? Lasai! guk lagunduko dizugu eta baliabide bakoitzeko adibide bana emango dizugu; zuk beste batzuk aurkitu eta idatziko dituzu.

a) Enumerazioak

(3.-4. lerroetan) "(...) oso da alaia, atsegina, arina, guztiz light..."

b) Antzeko adjektiboak / sustantiboak

(6. lerroan) "(...) haizea eta putza."

c) Elipsiak

(17.-18.-19. lerroetan) "Etxe ederra du, eta zakurra, eta bi seme-alaba... asteburuetan erakusgai!"

d) Ezeztapen errepikatuak

(4.-5.-6. lerroetan) "Ez da ia ezer, korbata eta irribarrea besterik ez, ..."

Deskripzio idatzia

e) Zergatizko errepikatuak

(32.-33. lerroetan) "(...) Guggenheimera joateko asmoa baitu Abiadura Handiko Trenean..."

4. Orain, pentsa ezazu zein pertsonaia ezagun deskriba dezakezun era horretan. Kontuan izan asmakizun antzera egin behar duzula. Eta has zaitez baliabideak prestatzen; esaterako, bait- forma aukera dezakezu hainbatetan errepikatzeko eta gero, -(e)lako beste hainbatetarako.

Enumerazioak	Antzeko adjektiboak edo sustantiboak	Kausazkoak	Ezeztapenak
		bait- -(e)lako	

Idatzi bitartean

5. Idatz ezazu zirriborroa, eta egin itzazu egin behar dituzun aldaketak.

6. Azkenik, idatz ezazu ondoko fitxan deskribapenaren azken bertsioa.

3. Hiztegia lantzeko teknikak

Hiztegiaren birpasarako oso garrantzitsua da hitzak antolatzea (multzokatzea, graduatzea,...) eta baita hitzak manipulatzeko ere (kontestuan erabiltzea, eratorzea, edo geure bizimoduan integratzea). Horrez gain, ez ahaztu hainbatero birpasatzeaz. Bi gauzak egin ahal izateko teknikak proposatuko dizkizugu.

1

Hitzak antolatzeko teknika.

Zeure gelarik gustukoena deskribatzeko behar izan dituzun hitzekin zerrenda bat osatu duzu. Sailka itzazu hitz horiek. Zeren arabera? Ba, esaterako, parametro hauen arabera:

- nahiz eta euskaraz genero morfologikorik ez izan, sailka itzazu hitzak bi multzotan = zure ustez femeninoak direnak eta maskulinoak direnak
- materialen arabera: egurrezkoak, burdinazkoak, paperezkoak...
- atzizkia daukatenak eta eratorriak ez direnak
- objektuak izendatzeko balio dutenak, objektuen ezaugarriak izendatzekoak, aditzak...
- 3 silaba baino gutxiagokoak eta 3 silaba baino gehiagokoak
- maite dituzun gauzak izendatzekoak eta gorroto dituzunak izendatzekoak
- ... (zeuk asma ditzakezu beste parametro batzuk, agian zure zerrenda sailkatzeko aproposak izango direnak)

4. Material osagarriak

B

2

Hitzak manipulatzeko teknika.

Esan bezala, hitzak ikasteko oso eraginkorra gertatzen da hitzok geure bizimoduan integratzea. Horretarako, honako teknika hau erabil daiteke. Gelako objektuen izenak ikasi nahi baditugu, adibidez, objektuari izena azaltzen duen txarteltxo bat jarri. Ikusiaren ikusiaz, nahi barik ikasiko dituzu berbak, epe labur batean.



C

4. Kanta trukean³

1

- Graba ezazu gustuko duzun kanta 90 minutuko zinta baten hasieran.
- Kasetearen kartoi-azalean idatzi kanta eta artistaren izenak. Horien ondoan ezarri zeure ezizena (asmatu zuk zeuk).
- Kantaren ostean, grabatu zeure burua aurkezteko sarrera modukoa: erabili lehen aipatu dugun ezizena. Hitz egin, nahi beste, aukeratu duzun kantari buruz. Agian ohar batzuk prestatu nahi izango dituzu. Ondo da. Jaso itzazu, baina grabatzerakoan ez irakurri, mintzatu egin behar duzu. Gidoitxotarako, hona hizpide batzuk:
 - ⇒ zergatik aukeratu duzun kanta hori: musika-mota, erritmoa,...
 - ⇒ zer iritzi daukazu letrari eta musikari buruz
 - ⇒ taldearen gainean dakizuna: nongoa den, diskoak,...
 - ⇒ kantak iradokitzen dizuna: sentrazioak, mezua,...
 - ⇒ noiz entzuten duzun kanta hori (azaldu egoera).
- Kasetea ekartzen diozunean irakasleari, berak beste klase bateko ikasle bati emango dio. Honek ez zaitu ezagutuko.
- Ikasle horrek zure kanta entzungo du. Zinta berean bere burua aurkeztu (ezizena erabiliz) eta kantari buruzko iritzia azalduko du. Honen ostean, berak aukeratutako kanta grabatu eta aurretik zuk jokatu bezala egingo du.
- Oraingoan ere, irakasleak zuri helaraziko dizu hark egindakoa.
- Nahi izanez gero, prozesu horretan jarraitzen ahal duzue. Ikasturte amaieran festa modukoa antolatuko da eta kasete-laguna aurrez aurre ezagutu ahalko duzu.
- Oharra: Hiru arau bete behar dituzu:
 - ⇒ komentarioak ezin dira irakurri,
 - ⇒ ez erabili ama-hizkuntza,
 - ⇒ ez ezarri denbora-mugarik.

³ Murphey, Tim 1992 Music & Song. Oxford University Press, 99. or.

4. Material osagarriak

D

5. Dastatu literatura: Henry Bengoa⁴ Inventarium

1

Gogoratzen duzu A ataza? Han deskripziorako baliabideak ikasi zenituen. Horietako bat enumerazioa da, ezta? Eta zer da inventarium-a enumerazioa baino? Alde horretatik, zera esan dezakegu: Atxagaren liburu hau deskripzioa dela.

A! Inventarium horretan ipuinak eta poemak ere badaude tartekatuta.

Jakin nahi duzu zeren gainekoa den?

1. Henry Bengoaren lagunek, bi hilabete bere berririk gabe egon eta gero, Hamburgora joatea erabaki dute eta beraren etxera sartzean...

“Guri zerbait hautsi zitzaigukean bihotzean, KRA!
apartamenduko atea zabaldu zigutenean, KRA!
paperak lurrean, KRA!, ohea egin gabe, KRA!
zigarro muturrak mesanotxean, KRA!
ez dut zuekin ezer jakin nahi,
esan zian jabeak,
egin inbentarioa
eta gero alde hemendikan, KRA!
eta gutako batek armarioa zabaldu zian KRA!
eta beste bat apuntatzen hasi huen
koaderno berde batean, KRA!”

9. or.

2. Eta inventarium normala egiten hasten dira

“Eta armarioaren apaletan:
– Larruzko zapata beltz batzuk;
– Lonazko zapatila txuriak;
– Beltz koloreko betuna;
– Betunez zikindutako trapuak;
– Zepilu pare bat;

Eta armarioaren beste konpartimenduan:

– Kasko beltz bat motorrerako;
– Goante beltzak;
– Destorniladorea;
– Esponja zarpail bat;”

17. or.

⁴ Atxaga, Bernardo, 1995 Henry Bengoa Inventarium, lagun galdu baten bila. Emak Bakia baita eta Elkar.



3. Baina inventariuma egitean, beraren Hamburgoko bizimoduaz gauza asko jakiten dute.

"Eta ohearen gainean, banatutako tapaki eta maindireen gainean zakarrontzi bat dago,

Eta zakarrontzian:

- Hiru zigarro mutur, Camel;
- Sagar baten hondakina dirudien materia lizundu bat;
- Boligrafo lehertu bat;
- Polaroid makinarekin egindako sei fotografia kalitate gutxikoak;

Lehen fotografian, urruti xamarretik, barku bat ikusten da Hamburgoko portuaren kai batean. Barkua sutan dago, erretzen ari da.

Bigarren fotografian, lehen baino bertagotik, barku berbera ikusten da. Atzekalde guztia suak hartuta dauka. Garrak mastatik gora igotzen dira.

Hirugarren fotografian ez da ezer antzematen, kolore gorri eta urdinen nahasketa bat ezpada.

Laugarren fotografian jendea ikusten da, portutik paseatzen edo, baina ez da inoren aurpegirik antzematen.

Boskarren fotografian hiru pertsona antzematen dira, bi gizon eta emakume gazte bat. Emakumea gabardina krema batekin dihoa, eta ilea laburra du, horixka. Gizonezkoak zaharrak dira, jubilatua agian.

Seigarren fotografia kafetegia batetan dago egina, eta hiru mahai hartzen ditu. Lehenengo mahaia hutsik dago; Bigarren mahaiaren senar emazte batzuk teontzi bati begiratzen diote; Hirugarren mahaiaren gabardina kremako emakumea azaltzen da, boskarren fotografiako bera. Aurpegi izutuaz begiratzen dio Polaroid-ari. Fotografiaren gainean, errotuladore beltzez, Mathilda Smith 77 91 555 jartzen du."

36.-37. or.

4. Edozein eleberritan bezala, amaieran jakiten da gertatutakoa baina, kasu honetan, inventarium formatoan, noski!

"Karta hor etetzen da, eta mesanotxearen ondoan maleta bat dago, eta maletaren txartelean:

- Mathilda Smith jartzen du

Eta maletaren barruan:

- Emakume arropa dago.
- Eta nezaser bat dago.
- Hamburgoko portuaren plano bat dago.
- Fabrika handi bateko plano bat dago.
- Hamburgoko industrigizonen zerrenda eta zuzenbideak.
- Gradu handiko militarren zerrenda eta zuzenbideak.
- Pasamontañas bat dago.

4. Material osagarriak

D

- Antiaju beltzak.
- Ormako erloju biribila dago.
- Bost detonadore.
- Ulrike Meinhoffen liburu bat dago.
- Identitateko txartel bat, Mathildaren erretratoarekin baina Margarete Schulte-ren izenean.
- Identitateko txartel bat, Mathildaren erretratoarekin baina Maria Hoffmanstal-en izenean."

48. or.

Gainontzeko atazetan ikusi bezala, inguruko gauzek gutaz hitz egiten dute. Oraingoan, ikusi duzun bezala, objektuen bidez bizimoduaren deskribapena egiten da. Irakur ezazu! Ikusi duzu zein erritmo bizia, ezta?